



55 urte zientzia eta teknologia lantzen

Fernando Plazaola

EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko dekanoa

EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean ospakizunetan gaude: lehen promozioiko ikasleek ikasketak amaitu zituztenetik 50 urte bete dira. Gaur Bizkaia Frontoian ospatuko dugu, 2022-2023ko promozioaren Graduazio Ekitaldiaren barne. Gazte haiek 1968-1969ko ikasturtean lehen euskal unibertsitate publikoan hasi ziren ikasten, Bilboko Unibertsitate Autonomoko Zientzia Fakultatean. Unibertsitatea Ekonomia, Medikuntza eta gure fakultateek osatzen zuten, gaur hartan Zientzia Fakultatea deitua. Lehenengo eskolak Botika kaleko bat zenbakian eman zituzten, Deustuko zubiaren ondoan, garai bateko Nautika Eskolan, Portugaletera aldatu berri zena. Azkenekoak Leioako egungo eraikinean eman zituzten, 1971. urtearen amaieran jarduera hara lekualdatu baitzen. Bilboko Unibertsitate Autonomo hura Euskal Herriko Unibertsitatearen ernamuina izan zen, 1980an berризendatua, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako fakultateak eta eskolak hartuz.

Aspaldi ez dela, jubilatzeaz dagoen gure fakultateko irakasle batekin kafe bat hartzen ari nintzelarik, nahi zuen lizentziaturan matrikulatzeko garaiz iristeko izan zituen zailtasunei buruz hitz egin zidan. Izan ere, bilbotarra ez zenez, ezta lurralde honetakoa ere, komunikazioak gaindiezinak

ziren. Garai hartan, bere hitzetan, ez zen erraza Gipuzkoa «*profundatik*» hona etortzea. Hori joan den mendeko 70eko hamarkadan gertatzen zen, lurraldeen arteko komunikazioa zailagoa zenean eta fakultatea oso ezaguna ez zenean. Gaur egun, ordea, egoera guztiz desberdina da: Zientzia eta Teknologia Fakultatea eta bertan ematen diren titulazioak ezagunak eta aitortuak ditu euskal gizarteak.

Ez dut esateagatik esaten: datuek bermatzen dute. Adibidez, gure titulazioek jasotzen dituzten aurretiko izen-emate ugariak edo fakultateko gradu ezberdinetan onartua izateko gutxieneko nota altua. 2014-2015az geroztik, fakultateak eskaintzen dituen titulazio bi dira EHUko mozketak: nota altuena dutenak: Biokimika eta Biologia Molekularreko gradua edo gradu bikoitza Fisikan eta Ingeniaritza Elektronikokoan. Gainera, ikastaro honetan hamabitik gorako sarrera-nota behar izan da (gehienezko hamalau balioarekiko) fakultatean ematen diren hamar graduetatik lautan, eta beste bitan 11tik gorakoa. Argi eta garbi adierazten dute gizartearen ikasleriarik onenaren zati handi bat Zientzia eta Teknologia Fakultatean formatzen dela. Jakina, hori ez da kasualitatea: fakultateak gizarteari egiten dion ekarpena funtsezkoa izan da horretarako.

Lehen promozioaz geroztik, duela 50 urte lizentziatua, fakultateak 20.000 tituludun inguru formatu ditu. Gainera, hainbatek prestakuntza elebiduna jaso dute, unibertsitate ikasketak euskaraz ezartzen aitzin-

daria izan baita fakultatea. Izan ere, 1979-1980an Biologia, Geologia eta Kimika titulazioetan euskarazko lehen maila osoa eskaini genuen.

Ikerketa-lana funtsezko helburua izan da. Gure ikastetxean 2.300 doktore-tesi baino gehiago defendatu dira. Diktadura amaitu zenetik euskal gizarteak garatzen lagundu duten profesionalak. Kopuru horiek langile kualifikatu eta elebidunen ekarpen handia suposatzen dute, gizarte-arlo desberdinetan lan egiten duten

Ikerketa-lana funtsezko helburua izan da. Gure ikastetxean 2.300 doktore-tesi baino gehiago defendatu dira

langileak, batez ere produkzio-sarean, baina baita erakundeetan eta hezkuntzan ere, eta horietako asko erantzukizuneko postuetan daude.

Ezagutza sortzen dugu, nazioarteko ikerketa-aldizkari ospetsuetatik zabalitzen dena eta jakintzak planeta mailan aurrera egiten laguntzen duena. Zehazki, azken hiru urteetan, fakultateko ikertzaileek 2.421 artikulugitaratu dituzte, eta horietatik 70ek, 50 aipu baino gehiago jaso dituzte dagoeneko. Horrek adierazten du gure fakultatean egiten den ikerketaren kalitatea eta mundu mailan duen proiektzioa.

Gure zentroko ikerketaren zati handi batek oso eragin zuzena du gizartearen. Adibide zehatz eta bereziki garrantzitsu bat: hainbat ikerketa-talde modu erabakigarrian parte hartu zuten Bilboko itsasadarra lehengoratzeko lanetan, eta gaur egun haien mantentze-lanetan parte hartzen dute. Beste adibide bat *Prestige*-ren hondamendi ekologikoak gure itsasertzean eragindako kutsaduraren analisia izango litzateke; giza osasunean eragin oso larria izan zezakeen 3.000 tona lindanoren problematika konpontzea; edo berriagoa, COVID-19, zeinean gure fakultateko taldeek aktiboki parte hartu zuten diagnostikorako diseinatutako estrategian eta infektatutako pertsonen modelizazio estatistikokoan. Rover Perseverance-ren tresnetako bat, gaur egun Marteko azalera aztertzen duena, Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikerketa-talde batek zuzentzen du; eta gure ibaiak kontserbatzen eta lehengoratzeko ere laguntzen dugu; baita kutsadura aztertzen ere, TREC (TRaversing European Coastlines) espedizioarekin kolaboratuz Europako kostaldeko ekosistemen errolda baten bidez, mota horretako lehena.

Tribuna honetatik eskerrak ematen dizkiet Zientzia eta Teknologia Fakultatea orain den bezalakoa izan dadin lagundu duten pertsona guztiei; bereziki, lehen promozioari, 50. urteurrenean omenduko duguna. Haiek izan dira gure fakultatea bihurtu den fruituaren hazia, Euskal Herriaren garapen ekonomiko eta sozialean lagundu izanaz harro. ●